

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

ANGOSTOKO KANPINA HANDITZEA, 2. ALDIA. 2018-2019 URTEETAN
GAUZATZEKO

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- ☐ II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- ☒ III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- ☐ IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- ☐ V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- ☐ VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Helburua da 2018an ustiatzen hasi ahal izatea erositako finka berrian proposatutako hedapena. 2019an, beste hedapen-proiektu bati ekitea begiz jota daukagu, aurten prestatzen ari garen aurreikuspenak eta helburuak betetzen badira.

5.- Inbertsio totala: 124.876,02 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 66.184,29 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 0,00 euro

7.- Onuraduna:

GAUBEA KANPINA, S.L.

- ☐ Publikoa
- ☒ Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

Eskura ditugun hurbileko baliabide guztiak sustatzen eta baliatzen ahalegintzen gara. Inguruan, ekoizkin ekologikoak, artisau-produktuak edo kalitate egiaztatuko produktuak eskaintzen dituzten tokiko hornitzaile guztiekin lan egiten dugu. Eta gure zerbitzu-hornitzaileak ere tokikoak dira, eskaintza aurkitzen dugun heinean.

Gainerako ostalaritza-establezimenduekin koordinatzen gara Gaubeako Turismo Bulegoaren bidez, eta gurean artatu gabeko eskaria eskualdeko gainerako ostatu eta jatetxeetara bideratzen dugu.

Kanpina inguruko “zerbitzu-gune” gisa ulertzen dugu, halako eran, non mundu guztiak egiten dakien lana eskain dezakeen edo beharrak eskatzeko aukera duen. Adibidez, badira banaketa- eta garraio-sistema batzuk haranaren amaierako herrietaraino iristen ez direnak, eta kanpinean bertan uzten dizkigute paketeak, haraneko bizilagunek jaso ditzaten. Eta guk, helburu ditugun zerbitzuak handitze eta ordutegiak zabaltzeari esker, laguntza-mota hori eskaini diezaiekegu bizilagunei.

9.- Inbertsio edo aktuzioen lokalizazioa:

Gaubea, Araba

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Angostoko kanpina handitzea, 2018an eta 2019an egin beharreko 2. aldian. Handitzea honetan datza: mobilhome eta karabanan edo autokarabanan ostatu hartzeko partzelen bi kale urbanizatzean.

Argia, elektrizitatea, ur-hornidura, saneamendua, datuak erabiltzeko instalazioak jartzea eta pertsonak zein ibilgailuak igarotzeko behar diren bide-zoruak egokitzea.

Jarduera kanpina eta hari datxezkion zerbitzuak (jateetxea, denda...) ustiatzean datza. Ustiapen-mota hori bakarra da udalerrian eta LGPN ezarritako helburu estrategikoekin erabat bat datorrenez gero, funtsezkoa da Gaubea garatzeko. Inguruko turismoa eta haraneko gizarte-bizitza indartzeko eragile bizia izan da. Haranean, langile gehien dituen enpresa da, eta horietako batzuk Gaubeara bizitzera etorri dira, eta bezero batzuk udalerrian bertan finkatu dute lehen bizilekua edo etxebizitza erosi dute bigarren bizileku gisa.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

2018an, kanpinaren hedapena dela, zerbitzu-eskaintza handiagoa dela, 13 langile finko izatetik (batzuk etenkakoak) 19 izatera igaroko gara, eta hileko lan-igoerak zenbatuta, ia 4 langile gehiago izango ditugu 2018an eta 2019an.

Kontuan izan behar dugu hedapenak geuk begiz jotako arrakasta izanez gero, hurrengo urteetan ere hedapenak egingo ditugula, orain erositako finkan kanpinaren garapen osoa osatu arte, eta horrek eragin garbia izango luke gure enpresako eta, oro har, Gaubeako enpleguan.